



**Euskal Herriko  
Foro sozialeko  
antolaketa batzordea**  
[contact@forumsocialpaysbasque.org](mailto:contact@forumsocialpaysbasque.org)

## **Bestelako munduak posible dira Horiek eraikitzeko, nola borrokatu elgarrekin ?**

Gogoeta arratsaldea, 2009ko **urtarrilaren 31an**, larunbatarekin, 14:30tan  
Euskal Herriko Foro sozialeko antolaketa batzordeak proposaturik

2009ko urte hastapen honetan krisia aipu da solas guzietan, prentsako izenburu guzietan. 2008ko urte hondarrean, anitzek historikotzat jotzen duten finantza-krisia lehertu da. Haren talka-uhina hedatuz doa eta urraska, ekonomia alor guzietara hedatzen da. Azken hiru urte hauetan jendeen baitan kontzientzi hartze nabarmena eragin duen klima-krisiari gaineratzen zaio, bai eta energia-krisiari eta Hegoko herrietan larri larri gertatzen ari den elikagaien krisiari ere. Azkenik 25 urtez geroztik munduan nagusitu diren politika neo-liberalen ondorioz, jendarte-krisia sakona hantzen ari da herrialde guzietan, nahiz eta era ezberdinez gauzatu herrien arabera.

Gaur egun, tendentzi ezberdinetako aditu anitzek, aterabide ezagunik ez duen kapitalismoaren krisi sakona aipatzen dute. Historiak erakustera ematen digu ahalbideak anitzak direla. Txarrena ezin bada baztertu, hoberena ere gerta daiteke baldin eta, jendarteak, mugimendu herritarrek, eragile sozialak egoeraz jabetzen badira.

Duela hamar bat urte, mundu osoan, kapitalismoaren logikaren kontra milaka borroka eta eragile sozial ezberdinak elkartuz, lema sinplea bezain anbizio handikoa plazaratuz: « beste mundu bat posible da » mugimendu altermundialista sortu zen. OMC, G8-ren kontrako jende biltzeak, Hegoko zorraren ezabatzeko mobilizapenak, Iraken kontrako gerla salaketak... azken urteetako hainbat ekitaldiek ederki erakutsi dute, « ezin da besterik egin » dion ideologia nagusiaren aurka jendea oldar daitekeela, buru egin dezakeela.

Paraleloki, 2001ean, Munduko Foro Soziala<sup>1</sup> sortuz, mugimendu altermundialistak, tresna berri bat eraiki du, geografikoki eta sozialki hedatzeko bai eta eztabaidak, partzuergoak egiten diren alternatibak eta erresistentzia guneak antolatzeke ere. Foroak biderkatu dira, kontinenteka, herrika, guneka, Euskal Herrian bezala, 2002z geroztik urtero biltzen den Euskal Herriko Foro Sozialarekin non, anitzek, eragile sozial, elkartekide, sindikalista, herritar soil, orain eta hemen eramaiten dituzten borroken berri eman duten eta eztabaidatu duten<sup>2</sup>.

Urtarrilaren 27tik otsailaren 1era zortzigarren Munduko Foro soziala bilduko da Belém<sup>3</sup> herrian, Brasilen eta ehunka lankien artean, duela urte bat hasi mugimendu altermundialistaren estrategiari buruzko gogoeta eztabaiden muina izanen da. Ezen, premia handia baita krisia horren ondorio larrien kontra norabideak definitu, inizatibak hartu eta borrokek sustatzeko, bai eta kapitalismoari alternatibak sortzeko ere.

1 [http://www.forumsocialmundial.org.br/index.php?cd\\_language=3&id\\_menu](http://www.forumsocialmundial.org.br/index.php?cd_language=3&id_menu)

2 [www.forumsocialpaysbasque.org](http://www.forumsocialpaysbasque.org)

3 <http://www.fsm2009amazonia.org.br/>

Azken hamarkadan, mota guztietako borroka sozialak ugari izan dira Euskal Herrian, batzuetan garaile, batzuetan ez, eta horietako batzuk Euskal Herriko Laborantza Ganbarakoa adibidez, eredugarriak dira problematika desberdinak uztartzen baitituzte. Hemen ere beharrezkoa da **gogoetarako denbora pixka bat hartzea, egindako bidez eta bakoitzaren esperientziaz iritziak trukatzeko**. Hauxe dugu urtarrilaren 31ko egunaren helburua, bi partetan iraganen dena :

- ✓ eztabaida momentua talde ttipika, Euskal Herri nahiz mundu mailako borroka sozialei buruz, etortzekoak diren borroka eta aukera berriei bai eta borroka horiek eramaiteko behar diren tresnei buruz ere.
- ✓ Hitzaldi-eztabaida momentua, zenbait borroka eta mugimendu altermundialista ikertu dituen Lilian Mathieu soziologoarekin, « *Comment lutter ? : Sociologie et mouvements sociaux* » liburua idatzi duena.

Etor gostuan,  
zure borroka esperientziak aipatzeko,  
zure galdeak denei pausatzeko  
eta mundu hau aldatzeko gogo partekatzeko !

Euskal Herriko Foro sozialeko  
antolaketa batzordea

**Urtarrilaren 31ko egitaraua  
Baionako Gaztelu Berriko IUT-ean**

- 14:00 - 14:30 : parte hartzaileei harrera
- 14:30 - 16:00 : talde ttipika eztabaidak galdesorta baten laguntzarekin
- 16:00 - 16:30 : pausa
- 16:30 - 17:00 : eztabaiden bilduma laburra
- 17:00 - 18:30 : Lilian Mathieurekin hitzaldi-eztabaida